


“ZANGOZAKO HIRIA”

XXV HURRENDAKO LITERATURA LEHIAKETA

HITZ LAUZ EDO BERTSOZ

OINARRIAK 2023

- 1.** Lehiaketa Zangozarekin zerikusia duten gaiei lotuko zaiei (edozein arlotan). Lehiakideek obra bakarra aurkeztu ahal izanen dute bi modalitateetako batean (gaztelania edo euskara), baldin eta jatorrizko lanak eta argitaragabeak badira eta lan osoan edo zati batean ez badakarte lan propioen edo beste pertsona batzuenen kopia, plagioa, birsorkuntza edo aldaketarik. Lanak banaka zein taldean egin ahal izanen dira.
- 2.** Lanak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu eta **2023ko ekainaren 2ko 14:00etan amaituko da.**
- 3.** Lehiakideek euren lanak aurkeztu edo bidaliko dituzte Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxera, Alfontso Borrokalaria karrika, 20.
- 4.** Lehiaketa behin amaituta, lehiakideek hilabete izanen dute lanak erretiratzeko, sarituak izan ezik, horiek udal jabetzan geratuko baitira. Ezarritako epean erretirutzen ez diren lanak suntsitu egingen dira, eta egileek haiei uko egiten dietela ulertuko da, eta erreklamazio edo kalteordainerako eskubide oro galduko dute. Zangozako Udalak ez du bere gain hartzen balizko kalteen, galtzeen, ezta obrak itzultzearen erantzukizunik ere lehiaketa amaitu ondoren.
- 5.** Aurkeztutako lanetan parte-hartzailearen adina eta obraren izenburua agertu beharko dira. Gainera, gutun-azal itxi bat erantsiko da, eta bertan, kanpoaldean, izenburua, modalitatea eta aurkeztu den maila jasoko dira. Barruan egilearen/egileen datu pertsonalak jarri beharko dira (izena, abizenak, helbidea, telefonoa, adina, zein ikastetxetan ikasten duen, egiten duen ikasurtea eta zein modalitatetan parte hartzen duen: euskaraz edo gaztelaniaz).
- 6.** Lanen gehieneko luzera hiru orrikoa izanen da, alde batetik idatzita eta tarte bikoitzean.
- 7.** Zangozako Udaleko Kultura eta Jaietako Batzordeak izendatutako kideek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea.
- 8.** Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta **2023ko uztailaren 3a baino lehen jakinaraziko da.**
- 9.** Lehiaketa honetara aurkeztu ahal izanen dira Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasketak egiten dituzten haur guztiak.
- 10.** Bi modalitate ezartzen dira: gaztelania eta euskara, eta horietako bakoitzean HIRU maila. Maila bakoitzak sari bana izanen du: eskola-erabilerako materiala (informatikoa, kirolekoa...). Saritutako pertsonak hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen dute. Erosketa egiteko epea 2023ko irailaren 11tik abenduaren 15era izanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.



XXVº CONCURSO LITERARIO INFANTIL

“CIUDAD DE SANGÜESA-ZANGOZA”

EN PROSA O EN VERSO

BASES 2023

GAZTELANIAZKO MODALITATEA

- **Lehen maila Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa,,,) 100 euroko sari bakarra emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.
- **Bigarren maila Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa,,,) 100 euroko sari bakarra emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.
- **Hirugarren maila DBHko 1. eta 2. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa,,,) 100 euroko sari bakarra emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

EUSKARAZKO MODALITATEA

- **Lehen maila Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa,,,) 100 euroko sari bakarra emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.
- **Bigarren maila Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa,,,) 100 euroko sari bakarra emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.
- **Hirugarren maila DBHko 1. eta 2. mailetako** modalitateari dagokio, eta sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa,,,) 100 euroko sari bakarra emanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura egingen da.

11. Epaimahaiak sariak eman gabe uzteko eskubidea izanen du, baita mailetako batean sari bat baino gehiago ematekoa ere.

12. Saritutako lanak 2023ko Jailetako Egitarau ofizialean sartuko dira.

13. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.